

GIZONEK ETA MUTILEK
GENERO-BERDINTASUNERAKO
POLITIKETAN ETA EMAKUMEEN
KONTRAKO INDARKERIAREN
AURKAKO POLITIKETAN DUTEN
LEKUARI BURUZKO JARRAIBIDEAK



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER


Erakunde autonomotzatuta

Organismo Autónomo mixto

EUSKO JAURRIARITZA



GOBIERNO VASCO



CM(2023)51-add2-final gidalerroak, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak 2023ko ekainaren 5ean onartua.

Testu ofizialak

Ez da baimenik behar jabari publikokoak diren testu ofizialak erreproduzitzeko eta itzultzeko (hitzarmenak eta itunak, Ministroen Batzordearen ebazpenak eta gomendioak).

Ingelesa eta frantsesa dira Europako Kontseiluaren estatutu-dokumentuen bertsio ofizial bakarrak. Ofiziala ez den hizkuntza baterako itzulpena argitaratzailearen erantzukizunpean egin da.

COUNCIL OF EUROPE



CONSEIL DE L'EUROPE

Izenburua: *Gizonek eta mutilek genero-berdintasunerako politiketan eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako politiketan duten lekuari buruzko jarraibideak*

Edizioa: Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea

Diseinua eta maketazioa: George y Mildred

Data: xxx 2024

Deskribatzaileak: xxxxxxxx

Inprimaketa: xxxxxxxx

Lege-gordailua: XXXXXXXXXX

/ Edukiak

Aurkezpena

CM(2023)51-add2-final gidalerroak

Hitzaurrea

Gizonek eta mutilek genero-berdintasunerako politiketan eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako politiketan duten lekuari buruzko jarraibideak

Helburuak eta oinarrizko printzipioak

Estatu kideentzat proposatutako neurriak

Txostena eta ebaluazioa

/ Aurkezpena

EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Indarkeriarik gabe Bizitzeko Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Estrategiak beren printzipio orokorren artean jasotzen dute gizonak berdintasunaren alde inplikatu behar direla, eta botere publikoei eskatzen diete, zeharka eta ekintza espezifikoek bidez, gizonak berdintasunaren alde eta indarkeria matxistarik gabeko gizarte baten alde kontzientziazteko, bai eta berdintasunik gabeko maskulinitateak zalantzan jartzeko eta desagerrarazteko ere.

1988an sortu zenetik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak gizonak kontuan hartu ditu sentsibilizazio- eta prestakuntza-planetan, ikerketetan, programetan, jardueretan eta abarretan. Hala ere, 2007an jauzi kualitatibo bat egin zen Gizonduz ekimenaren sorrerarekin. Ekimen hori gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde espezifiki inplikatzen bideratuta dago, eta 2024an Eusko Jaurlaritzaren Berdintasunaren alde gizonekin eta maskulinitateekin lan egiteko zerbitzu gisa eratu zen, Emakundek kudeatuta.

Emakundek beti egin du lan gizonekin nazioarteko jarraibideekin bat eginez, eta, ildo horretan, funtsezkoak dira gaiari heltzeko Europako Kontseiluak 2023an onartutako jarraibideak, genero-berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako politiketan gizonen eta hurrek duten tokia buruzkoak.

Hain zuzen ere, duen garrantziagatik, Emakundek erabaki du dokumentu hori Erkidegoko hizkuntza ofizialetara itzultzea, sinetsita baitago herrialde honetako politika publikoen garapenean tresna izango dela berdintasunaren alde gizonekin lan egitea sustatzeko eta errazteko, eta, horrela, gai horri buruz gure araudian eta nazioarteko jarraibideetan aurreikusitakoa betetzeko.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaritza

CM(2023)51-add2-final gidalerroak

Gizonek eta mutilek genero-berdintasunerako politiketan eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako politiketan duten lekuari buruz (Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak 2023ko ekainaren 5ean onartua)

/ Hitzaurrea

Ministroen Batzordeak, Europako Kontseiluaren estatutuko 15.b) artikuluan ezarritako moduan (ETS, 1. zk.),

Kontuan harturik Europako Kontseiluaren helburua dela estatu kideen artean batasun handiagoa lortzea, besteak beste, giza eskubideen arloan arau komunak sustatuz eta ekintzak garatuz;

Gogoratu genero-berdintasuna funtsezkoa dela giza eskubideak babesteko, demokraziaren eta gobernu onaren funtzionamendurako, zuzenbide-estatuaren errespetatzeko eta guztiontzako ongizatea sustatzeko; emakumeen eta gizonen, nesken eta mutilen, eskubide-berdintasuna dakarrela, eta ikusgarritasun, ahalduntze, erantzukizun eta parte-hartze bera dakarrela bizitza publiko eta pribatuko esparru guztietan; eta baliabideak emakumeen eta gizonen artean berdintasunez eskuratu eta banatzea dakarrela, Europako Kontseiluaren Genero Berdintasunerako 2018-2023 aldirako Estrategian ezarritakoaren arabera;

Kontuan harturik gizonen zeregin handia dutela genero-desberdintasuna eta emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko, eta berdintasuneko gizarte bat eraikitzeko duten inplikazioa onuragarria dela epe ertain eta luzera emakume, gizon, neska, mutil eta gizarte osoarentzat;

Kontuan harturik gizonen eta mutilek genero-berdintasuna lortzen eta hari etekina ateratzen nola lagun dezaketen gero eta ikusgarritasun handiagoko gaia bihurtu dela azken urteotan, eta kontuan hartuta esparru politiko bat eskaini behar dela arlo horretako neurrietarako, indarrean dauden arau eta politiketan oinarrituta;

Gogoratu oraindik ere badirela egiturazko oztopo batzuk, genero-berdintasuna eta emakumeen eskubideak gizartean erabat gauzatzea eragozten dutenak; emakumeen eta nesken kontrako indarkeriak emakumeen giza eskubideen urraketa hedatuena izaten jarraitzen duela; jarduera politikoak eta erabaki publikoak oraindik ere gizonak nagusi diren eremuak direla, eta emakumeek ordaindu gabeko zaintza-lanen zati neurrigabea eramaten jarraitzen dutela, eta horrek eragina duela lan-merkatuan, kalitatezko enpleguan, erabakietan eta beste aukera batzuetan;

Kontuan harturik estatuek Europako Kontseiluaren hitzarmenen arabera hartutako betebeharrak eta konpromisoak, hala nola:

- › Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena (ETS, 5. zk., 1950);
- › Europako Gutun Soziala (ETS, 35. zk., 1961, 1996an berrikusia; ETS, 163. zk.);
- › Gizakien Salerosketaren Kontrako Ekintzari buruzko Hitzarmena (CETS, 197. zk., 2005);
- › Haurrak Sexu Esplotazioaren eta Sexu Abusuen Aurka Babesteko Hitzarmena (CETS, 201. zk., "Lanzaroteko Hitzarmena", 2007);
- › Emakumeen Kontrako Indarkeriari eta Etxeko Indarkeriari Aurrea Hartzeko eta Aurre Egiteko Hitzarmena (CETS, 210. zk., «Istanbulgo Hitzarmena», 2011);

Gogoratu Ministroen Batzordeak Europako Kontseiluko estatu kideei emandako gomendio hauek:

- › R (90) 4 zk.ko Gomendia, sexismoa hizkuntzatik kentzeari buruzkoa;
- › R (96) 5 zk.ko Gomendia, lana eta familia uztartzeari buruzkoa;
- › Rec (2002)5 Gomendia, emakumeak indarkeriaren aurka babesteari buruzkoa;
- › Rec (2003)3 Gomendia, erabaki politiko eta publikoetan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatuari buruzkoa;
- › Rec (2006)19 Gomendia, gurasotasun positiboari laguntzeko politikari buruzkoa;
- › CM/Rec (2007)13 Gomendia, hezkuntzan genero-ikuspegia txertatzeari buruzkoa;
- › M/Rec (2007)17 Gomendia, genero-berdintasunerako arau eta mekanismoei buruzkoa;
- › CM/Rec (2010)10 Gomendia, emakumeek eta gizonak gatazken prebentzioan, konponbidean eta bakearen eraikuntzan duten zereginari buruzkoa;
- › CM/Rec (2013)1 Gomendia, genero-berdintasunari eta komunikabideei buruzkoa;
- › CM/Rec (2015)2 Gomendia, kirolean genero-ikuspegia sartzeari buruzkoa;
- › CM/Rec (2019)1 Gomendia, sexismoa prebenitu eta borrokatzeari buruzkoa;

Kontuan harturik Europako Kontseiluaren Genero Berdintasunerako 2018-2023 aldirako Estrategia; Gogoratu:

- › Emakumeen Kontrako Diskriminazio Forma Guztiak Ezabatzeari buruzko
- › Nazio Batuen Hitzarmena (1979) eta haren hautazko protokoloa (1999);

- › Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena (1989);
- › Beijingo Adierazpena eta Ekintzarako Plataforma, Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzian onartuak (1995);
- › Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena, emakumeei eta bake eta segurtasunari buruzkoa (2000), eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ondorengo ebazpenak, gai horri buruzkoak;
- › Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen 2030erako Agenda;
- › Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak (2018) onartutako txostena, “Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko testuinguruan, gizonak eta mutilak genero-berdintasuna sustatzen eta lortzen inplikatzeko jardunbide eta irakaspen itxaropentsuak, dauden estrategiak eta Nazio Batuek eta beste ekimen batzuk berrikustea”;

Azpimarratuz patriarkatua, emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desberdintasunak sortu eta indartzen dituen sistema den aldetik, oraindik ere nagusi dela Europan eta kontinenteetan, eta emakumeen eta nesken aukerak eta ongizatea zorrotz mugatzen jarraitzen duela, baita gizonenak eta mutilenak ere, eta horrek eragin negatiboa duela gizarteetan, politikagintzan eta nazioarteko harremanetan, baita bakea, gizarte-justizia, klima-aldaketa eta bestelako gaiak jorrazteko moduari dagokionez ere;

Ikusirik COVID-19aren pandemiak egun dauden genero-desberdintasunak indartu dituela eta, aldi berean, desabantaila- eta bazterkeria-modu berriak sortu dituela;

Azpimarratuz gizonen eta emakumeen aniztasuna —arraz, kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste era batekoa, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional batekiko lotura, ondarea, jaiotza, sexu-orientazioa, genero-identitatea, adina, osasun-egoera, desgaitasuna, egoera zibila, migratzaile- edo errefuxiatu-egoera, edo beste egoera bat— kontuan hartu behar dela gizonak eta mutilek genero-berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeriari aurre egiteko politiketan eta neurrietan duten lekua eta ekarpena definituz eta politika eta neurri horiek ezartzean;


Aitortuz gizon eta mutilen jokabide indibidual eta kolektiboa funtsezkoa dela genero-berdintasuna eta emakumeen eta nesken eskubideak erabat lortzeko, haien ekintzek edo ekintzarik ezak berdintasunaren aldeko aurrerapenak azkartu, mantsotu edo alderantzikatu ditzaketela, eta gizonak eta mutilak gero eta gehiago aldatzeko eragin eragile bihurtzeko, eta gizonak, botere-postuetan, erantzukizun berezia dutela alde horretatik;


Kontuan hartuta gizonak eta mutilek bizitza publikoan eta pribatuan dituzten aukerak mugatu ditzaketen genero-desberdintasunak, arauak eta estereotipoak jasan ditzaketela; maskulinitate-kode jakin batzuek gizonen eta mutilen bizitzetan ere eragin negatiboa izan

dezaketela, batez ere indarkeriaren biktima eta/edo egile gisa, edo beraientzat eta/edo emakumeentzat eta neskeentzat kaltegarriak izan daitezkeen portaerak hartzean; eta, beraz, gizonak eta mutilak genero-berdintasunaren onuradun direla berezko eskubidez;

Baieztatuz, gizonak eta mutilek genero-berdintasunerako politiketan duten lekuari buruzko estrategien eta programen azken helburua dela gizartean genero-berdintasuna lortzea eta emakumeen eta nesken aurkako diskriminazio-, sexismo- eta indarkeria-mota guztiak ezabatzea, baita genero-arau eta -estereotipo diskriminatzaileak eraldatuz eta indarkeriarik gabeko, errespetuzko eta berdintasunezko genero-harremanak sustatuz ere,

1. Jarraibide hauek onartzen ditu estatu kideentzat esparru praktikoa gisa balio dezaten, gizonak eta mutilek genero-berdintasunerako politiketan eta emakumeen eta nesken kontrako indarkeriaren aurkako politiketan duten lekuari buruzko estrategiak eta neurriak sendotzen laguntzeko;
2. Estatu kideak hauek egitera gonbidatzen ditu:
 - › jarraibide horiek beren hizkuntza ofizialetara itzultzen direla eta zabaltzen direla bermatzea, agintari egoki guztiek ezar ditzaten bultzatzeko;
 - › haiek ezartzen izandako aurrerapenak ebaluatzea eta Europako Kontseiluko zuzendaritza-batzorde eskudunei arlo horretan hartutako neurrien eta lortutako aurrerapenen berri ematea.





**Gizonek eta
mutilek genero-
berdintasunerako
politiketan eta
emakumeen kontrako
indarkeriaren aurkako
politiketan duten lekuari
buruzko jarraibideak**

/ Helburuak eta oinarrizko printzipioak

Helburuak

1. Gidalerro hauen helburua da estatu kideek kontuan hartu beharreko oinarrizko printzipioak ezartzea gizonen eta mutilek genero-berdintasunerako politikan duten lekuari buruzko estrategiak, legeria eta bestelako neurriak prestatzean, zaintza-politikak eta emakumeen eta nesken kontrako indarkeriaren aurkako politikan duten lekua barne, eta estatu kideei horri buruzko estrategiak eta neurri praktikoak proposatzea.
2. Gidalerroak Europako eta nazioarteko hitzarmenetan, arauetan eta genero-berdintasunari eta emakumeen eskubideei buruzko politikan jasotako eskubideak eta printzipioak aplikatzeko prozesuaren parte dira, arlo horretan etengabeko atzerapausoen testuinguruan. Bereziki, genero-berdintasunaren arloan indarrean dauden arauak eta politikak urratzen edo zalantzan jartzen dituzten mugimendu antifeministek emakume eta gizon guztien oinarrizko eskubideak gauzatzeko mehatxua egiten dute.

Oinarrizko printzipioak

3. “Genero-berdintasunak eskubide berdinak dakarzkie emakumeei eta gizonen, neskei eta mutilei, baita ikusgarritasun, ahalduntze, erantzukizun eta partaidetza bera ere, bizitza publikoaren eta pribatuaren esparru guztietan. Era berean, emakumeen eta gizonen artean baliabideak eskuratzeko eta banatzeko berdintasuna dakar” (Europako Kontseiluaren Genero Berdintasunerako 2018-2023 aldirako Estrategia). Genero-berdintasunerako politiken helburua da genero-berdintasun substantibo sustatzea, baita emakumeak ahalduntzea ere, eta emakumeen eta nesken aurkako diskriminazio- eta indarkeria-mota guztiak ezabatzea.
4. Gizonen eta mutilek genero-berdintasunean duten lekuari buruzko politikek nazioarteko arauak, irizpideak eta Europako Kontseiluaren tresna egokiak bete behar dituzte, eta ikuspegi bikoitza izan behar dute:

- › neurri espezifikoak, egoki denean ekintza positiboa barne, genero-berdintasuna lortzeko funtsezkoak diren arloetan; eta
 - › politika eta neurri guztietan genero-ikuspegia txertatzea.
5. Gizonek eta mutilek genero-berdintasunerako politiketan parte hartzeko neurriak genero-berdintasunerako arau eta esparru politiko integraletan txertatu behar dira, eta egiturazko desberdintasunei aurre egitea izan behar dute helburu.
 6. Gizonei eta mutilei buruzko neurriek ikuspegi intersektional bat izan behar dute, hau da, sexua eta generoa ez diren beste alderdi batzuei lotutako bazterketa-sistemen eta desabantailen ondorioak konbinatzen dituen, hala nola arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste edozein iritzi, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional batekiko lotura, jabetza, jaiotza, sexu-orientazioa, genero-identitatea, adina, osasun-egoera, desgaitasuna, egoera zibila, migratzaile- edo errefuxiatu-egoera edo beste edozein egoera.
 7. Gizonak eta mutilak inplikaturako dituzten neurriek balio behar dute genero-berdintasunerako politikak indartzeko eta ez ordezkatzeko, batez ere emakumeei eta neskei zuzendutakoak, edo emakumeentzat bakarrik diren espazio eta programak aurreikusten dituzten mugimendu feministen berariazko ikuspegiak indartzeko. Emakumeek eta neskek genero-berdintasunean aurrera egiteko eta emakumeen eta nesken kontrako indarkeriaren aurka borrokatzeko duten protagonismoa aitortu behar dute neurriek.
 8. Gizonek eta mutilek parte hartzen duten neurriek ez dute eragin negatiborik izan behar emakumeen gobernuz kanpoko erakundeen (GKE) ikusgarritasunean, eta ez dituzte arriskuan jarri behar emakumeen eta nesken eskubideak sustatzera eta emakumeen eta nesken kontrako indarkeriaren aurka borrokatzerako bideratutako aukerak eta baliabideak.
 9. 9. Emakumeen eta nesken eskubideak, ahalduntzea eta lidergoa sustatzera eta, bereziki emakumeentzat soilik diren etxeko indarkeriaren aurkako babeslekuetan, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzera eta borrokatzerako bideratutako baliabideak desbideratu gabe, estatu kideek finantzaketa gehigarria eman beharko liekete gizonekin eta mutilekin zerikusia duten eta genero-berdintasuna lortzera eta emakumeen eta nesken eskubideak indartzera bideratuta dauden neurriek. Horrez gain, bermatu beharko lukete gai honetan hartutako neurriak aldi-aldi ebaluatzen direla.
 10. Gizonak eta mutilak inplikaturako dituzten neurriak diseinatu behar dira, genero-desberdintasunen eta emakumeen eta nesken kontrako indarkeriaren aurka aktiboki diharduten gizonekin eta mutilekin lan egiten duten erakunde garrantzitsuekin batera, bai eta emakumeen GKE garrantzitsuekin ere.

11. Ordaindu gabeko zaintzari eta etxeko erantzukizunei buruzko genero-arauak, estereotipoak eta sexismoak jorratu behar dira, emakumeek neurritz kanpoko parte-hartzea baitute, emakumeen eta gizonen artean erantzukizun horiek berdintasunez banatzeko.
12. Gizonei eta mutilei buruzko neurriek honako hau jorratu beharko lukete: emakumeen eta nesken aurkako indarkeria batez ere gizonek eta mutilek gauzatzen dutela, eta, beraz, funtzio berezia dutela indarkeria horren prebentzioan. Nahiz eta emakume eta neskei neurritz kanpo eragiten dien etxeko indarkeriak, gizonak eta mutilak ere biktima izan daitezke. Arreta berezia jarri behar zaie Istanbulgo Hitzarmeneko xedapenei, hain zuzen ere, gizonen eta mutilen papera jorratzen dutenei, batez ere prebentzioaren arloan, eta, besteak beste, erantzule, eginkizun-eredu, aldaketa-eragile eta genero-berdintasunaren defendatzaile gisa.
13. Legeriak, politikek eta estatu kideek hartutako gainerako neurriek ebidentzian oinarrituta egon behar dute, eta gaur egungo datu eta ikerketa zientifiko garrantzitsu eta zehatzak islatu behar dituzte genero-berdintasunaren, emakumeen eta nesken eskubideen eta emakumeen eta nesken kontrako indarkeriaren aurkako borrokaren arloan.



/ Estatu kideentzat proposatutako neurriak

- 14.** Estatu kideek neurri-mota hauek diseinatu ahal izango dituzte, lortu nahi den helburuaren arabera:
- ▶ gizonengan eta mutilengan arreta jartzen duten neurriak, aldaketaren eragile gisa eta genero-berdintasunaren aurkako erresistentziak indargabetzeko;
 - ▶ sexismoak, gizarte-arauek eta genero-estereotipoek gizonengan eta mutilengan duten eragin negatiboa murrizteko neurriak;
 - ▶ zaintzan genero-berdintasuna sustatzeko gizonengan eta mutilengan arreta jartzen duten neurriak;
 - ▶ gizonen eta mutilen papera indartzeko neurriak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko ekintzetan; eta genero-berdintasunari eta emakumeen eskubideei buruzko ikerketa zientifikoek eta datuen garapena eta zabalkundea sustatzeko neurriak.
- 15.** Jarraian proposatzen diren neurriez gain, estatu kideek bermatu behar dute, halaber, Ministroen Batzardeak estatu kideei ematen dizkien hainbat gomendiotako xedapen egokiak osorik aplikatuko direla, besteak beste, R (90) 4 zk.ko Gomendia, sexismoa hizkuntzatik kentzeari buruzkoa; R (96) 5 zk.ko Gomendia, lana eta familia uztartzeari buruzkoa; Rec(2002)5 Gomendia, emakumeak indarkeriaren aurka babesteari buruzkoa; Rec(2003)3 Gomendia, erabaki politiko eta publikoetan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatuari buruzkoa; Rec(2006)19 Gomendia, gurasotasun positiboari laguntzeko politikari buruzkoa; CM/ Rec(2007)13 Gomendia, hezkuntzan genero-ikuspegia txertatzeari buruzkoa; CM/ Rec(2007)17 Gomendia, genero-berdintasunerako arau eta mekanismoei buruzkoa; CM/Rec(2010)10 Gomendia, emakumeek eta gizonek gatazken prebentzioan, konponbidean eta bakearen eraikuntzan duten zereginari buruzkoa; CM/ Rec(2013)1 Gomendia, genero-berdintasunari eta komunikabideei buruzkoa; CM/Rec(2015)2 Gomendia, kirolean genero-ikuspegia sartzeari buruzkoa; eta CM/Rec(2019)1 Gomendia, sexismoa prebenitu eta borrokatzeari buruzkoa.

Gizonengan eta mutilengan arreta jartzen duten neurriak, aldaketaren eragile gisa eta genero-berdintasunaren aurkako erresistentziak indargabetzeko


- 16.** Europako Kontseiluaren Genero Berdintasunerako 2018-2023 aldirako Estrategian adierazten den bezala: “Jarduera politikoei eta erabaki publikoei gizonak nagusi diren eremuak izaten jarraitzen dute. Gizonek lehentasun politikoak ezartzen dituzte, eta kultura politikoa jokabide maskulinoen eta bizi-esperientziaren inguruan egituratzen da oraindik.” Horregatik, garrantzitsua da lider politikoek erantzukizuna hobetzea, genero-berdintasunaren eta emakumeen eskubideen arloan maila guztietan hartutako konpromisoen aurrean. Beste esparru batzuetan boterean dauden gizonek ere, enpresetan eta komunikabideetan esaterako, zeregin garrantzitsua izan dezakete genero-berdintasuna eta emakumeen eskubideak sustatzeko orduan, erabakiak hartzeko duten ahalmenaren, baliabideen eta eraginaren bidez.
- 17.** Patriarkatua izan ohi da genero-arau eta -jokabide kaltegarrien sorburua. Patriarkatuak politikaren formulazioan eta erabakiak hartzean ere eragin negatiboa du. Hori kontuan hartu behar da gizonek eta mutilek genero-berdintasuna lortzeko eginkizun eraldatzailea izan dezaten.
- 18.** Genero-berdintasunaren eta emakumeen eskubideen arloko estandarrei eta printzipioei aurka egiten dieten edo horiek zalantzan jartzen dituzten online eta offline espazio misoginoak gero eta kezka handiagoa dira genero-berdintasuna eta emakumeen eskubideak babesten dituzten interes-taldeentzat eta erakundeentzat. Neurri egokiak behar dira erresistentzia horri aurre egiteko eta haren eragina mugatzeko. Horretarako, erresistentzia- eta oposizio-moduak hobeto ezagutu behar dira, baita inplikaturako eragileak ere, politiko eta erlijioso jakin batzuk barne, nola finantzatzen diren eta demokraziarentzat eta giza eskubideentzat mehatxu potentziala diren. Are garrantzitsuagoa da hori indar ezberdinek generoari lotutako beste eremu batzuetako eskubideak zalantzan jartzen dituztenean, hala nola sexu- eta ugalketa-osasuna eta -eskubideak, sexualitatearen hezkuntza eta lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen eta intersexualen eskubideak (LGBTI+). Aukerak bilatu behar dira aldaketa positiboko eragileekin harremanetan jartzeko, mugimendu politiko eta erlijiosoetakoak barne, genero-berdintasuna eta lotutako lehentasunak areagotu nahi dituztenak.
- 19.** Estatu kideetako gobernuak aztertu egin behar dute zer neurri hartu:
 - a.** maila goreneko konpromiso segurua, sektore publikoan eta pribatuan genero-bereizkeria eta emakumeen aurkako indarkeria, sexismoa, genero-estereotipoak eta genero-boterearen dinamika arbuizatzen dituen kultura instituzionala aktiboki sustatzeko. Neurri horien artean hauek egon daitezke:

- › genero-parekotasuneko neurriak hartzea eta aplikatzea, bai eta erabakiak hartzeko kargu politiko, publiko eta pribatuentzako kuotak ere;
 - › zuzentzeko mekanismoak eta zehapenak barne hartzen dituzten jokabide-kodeak onartu eta aplikatzea, funtzionario publikoei eta langileei hainbat esparrutan orientazioa emateko;
 - › liderrek erabakiak hartzean genero-oreka sustatzearekin, genero-bereizkeriaren aurka borrokatzearekin eta genero-berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta nesken kontrako indarkeriaren aurka borrokatzeko neurri eta programetarako finantzaketa egokia eskaintzearekin lotutako konpromiso edo helburu zehatzak hartzea;
 - › emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua ez duten ekitaldien plangintzan edo panel publikoetan edo erabaki-organoetan parte ez hartzeko konpromiso publikoak;
- b.** zaintza-mekanismo demokratiko eta gardenak garatzea, maila guztietan erabakiak hartzen parte hartzen duten emakumeak eta gizonak, gobernuburuak eta alderdi politikoetako buruak barne, genero-berdintasunari eta emakumeen eta nesken eskubideei buruzko arau eta konpromiso nazionalak, europarrak eta nazioartekoak aplikatzeko hartutako neurrien berri emateko; erabakiak hartzeko orduan, gizonen ahotsak identifikatu, bultzatu eta mobilizatzea, baita politikariak, diplomazialariak, funtzionarioak eta indar armatuetako kideak ere, genero-berdintasunaren alde, emakumeek nazioarteko harremanetan duten konpromisoaren alde eta emakumeen, bakearen eta segurtasunaren arloan indarrean dauden nazioarteko konpromisoak erabat betetzearen alde;
 - c.** neurri zehatzak hartzea, esparru publikoan eta maila guztietan estilo misoginoak, menderatzaileak edo lidergo bortitzekoak desafiatzeko eta gutxiesteko, sensibilizazioaren, ikerketaren, prestakuntzaren eta jokabide-kodeen bidez;
 - d.** giza eskubideei eta genero-berdintasunari buruzko goi-mailako erantzule politikoentzako prestakuntza-saio selektiboak garatzea eta babestea, joera inkontzienteei aurre egiteko eta indarrean dauden estandarrei eta geratzen diren eronkei buruz sensibilizatzeke;
 - e.** barne-politikak eta ekintzak bultzatzea, bai eta genero-arau eta -estereotipoei, genero-berdintasunari, antidiskriminazioari, sexismoari, sexu-jazarpenari eta laneko indarkeriari buruzko nahitaezko prestakuntza ere, enpresa eta zerbitzu pribatu eta publikoetan erabakiak hartzen dituztenei zuzenduta;
 - f.** goinuaren ekimenen esparruan, adierazpen eta informazio publiko argiak ematea, gizonen eta mutilek genero-berdintasunerako politikan modu esanguratsuan parte hartzeko eta politika horien alde egiteko arrazoiari buruz;

- g.** kontsulta-prozesu eta lankidetzeta jasangarriak eta gardenak sustatzea emakumeen GKE garrantzitsuekin eta gizonekin eta mutilekin lan egiten duten eta genero-berdintasuna sustatzen diharduten erakundeekin, genero-berdintasuna lortzeko ahaleginetan gizonak eta mutilak inplikatzen politikak eta ekimenak aplikatzean partaidetza esanguratsua izan dezaten —baita erantzukizuna eta gardentasuna ere—;
- h.** emakumeen GKEei eta gizonekin eta mutilekin lan egiten duten erakundeei hurbiletik kontsulta eginez, gizonak eta mutilek genero-berdintasunaren sustapenean duten rolaekin lotutako estrategiak eta jarduerak diseinatzeko eta finantzatzeko irizpideak garatzen dira, besteak beste:

 - › helburu jakin bat, genero-berdintasuna sustatzeko eta genero-berdintasuna sustatzeari eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeriaren aurkako borrokari buruz ezarritako nazioarteko politikari eta estandarrei erabat atxikitzeko;
 - › babesak, bermatzeko gizon eta mutilek parte hartzeko politikari eta jarduerak ez dutela eragin negatiborik emakumeen eta nesken eskubideak, ahalduntzea eta lidergoa sustatzen dituzten programa eta erakundeen finantzaketan, legimititatean eta ikusgaitasunean;
 - › jarduerak ebidentzian oinarritzen direla bermatzeko babesak, eta genero-berdintasunaren eta emakumeen eta nesken kontrako indarkeriaren aurkako borrokaren arloetan gaur egungo datu eta ikerketa zientifiko garrantzitsu eta zehatzak islatzen dituztela;
- i.** aurreko irizpideak betetzen dituzten erakundeei, proiektuei eta programei laguntzea, gizonak eta mutilek genero-berdintasuna lortzen laguntzeko prestakuntza-ekintzak barne;
- j.** irakasleen eta genero-berdintasunerako programak —batez ere hurrekin eta gazteekin— diseinatu eta aplikatzen dituzten gainerako profesionalen segurtasuna eta babesa bermatzeko neurriak hartzea, talde antijuridikoan erasoan jomuga izan daitezkeenak;
- k.** neurriak hartzea identifikatzeko eta ulertzeko zer estrategia erabiltzen dituzten mugimendu atzerakoiek (mugimendu antifeministak eta online espazio misoginoak barne) genero-berdintasunaren aurka egiteko, eta prebentziozko esku-hartzeak aplikatzea aukera txikiagoa izan dezaten kontratatzeko, finantzaketa lortzeko, kalteak eragiteko eta eragin negatiboa izateko demokrazian, diskurtso politiko eta publikoan eta genero-berdintasunerako politiketan;

- l.** hitzaldi publikoak, mintegiak, biltzarrak eta sentsibilizazio-kanpainak antola daitezzen sustatzea, diskurtso misoginoa eta sexista deseraiki eta desafiatzeko, bai eta genero-berdintasunerako politikiei eta mugimendu feministei buruzko mitoak eta okerreko kontzeptuak ere;
- m.** nazio-mailan lan egiten duten erakunde garrantzitsuei dei egitea, terrorismoaren aurkako jarrera jendetsua har dezaten eta estremismo bortitza eragotz dezaten, besteak beste, mugimendu antifeminista bortitzen eta terrorismoaren arteko loturetan zentratuz.



Sexismoak, gizarte-arauek eta genero-estereotipoek gizonengan eta mutilengan duten eragin negatiboa murrizteko neurriak

